

Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria,

Nafarroako Gobernuaren ordezkaria

Euskadiko Kutzaren burua, zuzendari orokorra eta gainerako ordezkariak,

Eusko Ikaskuntzen burua,

Euskalgintzaren ordezkariak,

Komunikabideak,

Euskaltzainak,

Jaun-andreak,

Egun on guztioi eta ongi etorriak Euskaltzaindiaren egoitzara, eta, zer esanik ez, zuen, euskararen eta euskal kulturaren egoitzara.

Ongi-etorria ematen dizuet Euskaltzaindiaren izenean. Hala egiten dut, pozarren, gaur hemen ikusten ditugulako hainbat euskaltzain eta euskaltzale, hainbat erakunde eta administrazio publikoren ordezkari, eta, esan gabe doa, gaur aurkeztuko dugun egitasmoaren partaide eta egileak.

Zinez garrantzitsuak dira, hizkuntza ooren bilakaeran, dialektologia-ikerketak. Are garrantzitsuagoak, zer esanik ez, euskararen kasuan, euskalkiek gorpuztu eta norabidetu baitute, urte luzeetan zehar, euskal hizkuntzaren bilakaera eta ibilbidea. Horren jakitun izan da, hasiera-hasieratik, Euskaltzaindia, eta lan horri lotu zaio, gogo handiz, bere laurogeita hamar urteko historian.

Pausoak pauso, euskal dialektologiaren lanak behar zuen, ezbairik gabe, euskararen atlas linguistikoa osatzea. Horri ekin zion Euskaltzaindiak aspalditik, eta orain dator, guztion eskura, lehen ahalegin hura aintzat harturik, haren fruitu eta uzta, atlas horren lehenengo bi liburukitan mamitua.

Hats luzeko lan xehe eta zehatza aurkituko du liburuki hauen orrialdeetara hurreratzen denak, lanean ibili diren askoren ekarria. Baditu horrek atzean ordu askoren nekeak eta lorrak, on-gaitzak eta gorabeherak. Ezin bestelakorik izan, euskararen errealitatea esamolde, doinu eta soinu askotariko baita, oinarrizko batasunaren sustraietan.

Errealitate hori bildu da, ikertu da, eta papereratu da, egungo atlas linguistiko duinek behar duten moduan. Ezin, beraz, aurrerantzean auzitan jarri, hau edo hura, zer non erabiltzen den eta zertarako, Euskal Herri osoa baitago horretan ordezkaturik.

Metodologia ez ezik, edukia bera ere da azpimarragarria, hor dugulako, lehen-lehenik, eta Louis Lucien Bonapartek egin zituen hasierako lanen ondoren, hainbat euskalariren eginahalen eta ametsen emaitza erabakigarri eta eredugarria.

Ez dagokit, alabaina, niri hori aurkeztea. Horretarako hemen dira Adolfo Arejita, EHHA egitasmoaren zuzendaria, eta Beñat Oihartzabal, lehen liburukiaren gaineko ardura akademikoa izan duena.

Labur ditzadan, dena den, halako dekalogo batera, EHHA egitasmoaren nondik norakoak, Euskaltzaindiaren ikuspegi instituzionaletik:

1.- Hasteko, esan dezadan hiru euskarri desberdinetan egiten dugula aurkezpena, historian lehendabizi: paperean, CD formatuan eta sarean. Hortaz, ekitaldiak iraun bitartean zabalduko da, sarearen bitartez, lehen eta bigarren liburukien edukia. Hala banatuko zaizue, orobat, CD formatuaren bitartez, eta paperezkoak jasotzeko eskabidea ere egin ahal izango duzue. Horrela ikusiko duzue pantailan. Horrela ere erabili ahal izango du Euskaltzaindiaren webgunera urreratzen denak. Modu honetan jartzen du Euskaltzaindiak ikertzaileen eskura eta jakingura dutenen eskura euskararen esparruan dagoen dialektologiari buruzko lan esanguratsua, copyright sistemaren barruan. Esperantza du Euskararen Akademiak, baliabide hauek erreferentzia baliotsu izan daitezen, euskalgintzaren baitan.

2.- Hasian hasi, jarrai dezadan lanean, gaurkoa hasiera besterik ez baita. Izan ere, egitasmoaren lehen eta bigarren liburukiak aurkeztuko ditugu, baina egitasmo horrek etorkizuna ere badu. Dagoeneko hirugarren liburukia bukatuta dago, eta espero dezagun, Euskadiko Kutxaren laguntzarekin, urtea bukatu baino lehenago kalean ikustea. EHHA egitasmoaren material osoaren datu-basea ere bukatuta dago, eta Euskaltzaindiak ahaleginak egingo ditu, liburuak agertu bitartean, datu horiek erabilgarri egon daitezen.

3.- Horrelako lanek, argi dago, askoren laguntza eta parte-hartzea behar dute. Begien bistakoa da, bestalde, egitasmo horiek ez direla erraz kudeatzekoak. Luze joan da, askoren ustez, EHHAREN plazaratzea, Euskaltzaindiak 1983an egitasmo hau onartu zuenetik,

Markina-Xemeinen egindako Dialektologia Barne Jardunaldietan. 1984an abian jarri zen egitasmo hau, eta, orduetik hona, aldi latz zein gozoagoetan, Euskaltzaindiak eutsi egin dio lanari.

Hartara, konpromiso sendoa adierazi nahi du gaur Euskaltzaindiak, zuzendaritzaren bitartez, egitasmo horren segida bizkortzeko eta arintzeko, euskarari eta euskal kulturari onuragarri zaielakoan.

Askoz gehiago, garai honetan, baliabide mugatuak baititugu, eta, bide beretik, teknika berriak erabili eta emaitza sakonagoak erdietsi nahi ditugulako.

4.- Egun, sarri hitz egiten da ikerketaz eta bikaintasun akademikoaz. Halakoak dira gure xedeak, eta horien bila ari da etengabe Euskaltzaindia, azken laurogeita hamar urteetan. Bide beretik, ardua zaio Euskararen Akademiari egiten duen lan horren gizarteratze egokia. EHHA egitasmoaren lehen bi liburukiak dira, oraingoan, gizarterari Euskaltzaindiak eskaintzen dizkion emaitzak.

5.- Emaitzek, zernahi gisaz, egileak izaten dituzte. Egiletasun horretan, zilegi bekit banan-banan aipatzea egitasmo honetan parte hartu duten guztiak:

ZUZENDARIAK: Hurrenez hurren, Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Andolin Eguzkitza (†) eta Adolfo Arejita.

ARDURADUNAK: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Bidegain.

KIDEAK (Hurrenkerak alfabetikoan): Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Echaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Jon Idigoras, Juan Antonio Letamendia, Juantxu Rekalde, Koro Segurola, Amaia Jauregizar, Gorka Intxaurbe eta Aitor Iglesias.

EUSKALTZAINDIAK beren-beregi agerrarazi nahi die bere esker ona egitasmo kolektibo honetan parte hartu duten eta hartzen duten, eta lanean aritu diren eta ari diren guztiei; eta, jakina, ezin argiago aitortu, horiek guztiek egin duten lan bikaina. Giza lanak, nolana ere, beti ditu hutsak. Esan gabe doa horiek Euskaltzaindiarenak direla, eta ez egileenak.

6.- Orobat, erakundeak gogoratu eta eskertu behar ditugu.

Hastapenetik, urtez urte EHHA egitasmoaren finantzatzea bereziki bere gain izan duten Hegoaldeko herri erakundeak: Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Nafarroako Gobernuak.

1994az geroztik urte guztiez Euskaltzaindiaren gisa horretako egitasmoentzat bere laguntza eman duen Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak.

Urte batean edo bestean egitasmoa lagundu duten Akitaniako Kontseilua, Europar Batasuneko Hedadura Gutxiagoko Hizkuntzen Batzordea, Frantziako Irakaskintza eta Ikerkuntza Ministerioa, Europako Harremanetako Ministerioa, eta Baionako Euskal Ikerketa taldea (CNRS, Michel de Montaigne – Bordele 3ko Unibertsitatea eta

Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatea – UPPS).

7.- Bereziki aipatu behar da argitalpen honen babeslea, hain justu ere, Euskadiko Kutxa. Euskadiko Kutxari, gainera, beren-beregi aipatu eta eskertu nahi dizkiot, jendaurrean, haren eroapena eta egonarria, urte luzeetan eta baldintza desberdinetan aurrera egin duelako, gurekin batera, egitasmo honen fruituak plazaratzeko.

Badakit, bestalde, Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia eta Juanjo Zearreta (†) izan zirela, Euskaltzaindiaren aldetik, hasierako kudeaketa-ekimenak bideratu zituztenak, Euskadiko Kutxaren inguruan, Euskadiko Kutxaren Iñaki Gorroñorekin batera. Aldarrika dezadan Juanjo Zearretaren oroitzapena, hark makina bat lan egin zuelako, gaur aurkezten dugun hau kalean egon zedin. Berebat, Juan Ciden ahaleginak ere aipatu eta eskertu, Txomin Garcia, Euskadiko Kutxaren presidentea, eta Julio Gallastegi, Euskadiko Kutxaren zuzendari orokorra, bazter utzi gabe.

8.- Euskarak lan honekin beste urrats bat ematen du, urrats garrantzitsua, dialektologiaren lan zientifikoan. Lan horrek, bestalde, harago eramaten gaitu, hain justu ere, egun euskara batua den eta izan behar duena osatze aldera.

9.- Egitasmo honek etorkizunean ere beste emaitza batzuk ekarriko ditu. Horrenbestez, Euskaltzaindiak bere azken barne jardunaldietan jarri dituen lehentasunen artean, dialektologia-arloa

dago, eta, horren barruan, EHHA egitasmoari segida ematea eta ahozko tradizioa biltzeko egitasmoa.

10.- Bukatzera noa. Apropos utzi ditut azkenerako gaur gurekin ez daudenak eta EHHA egitasmo honen protagonista direnak, alegia, informatzaileak. Eurekin egingo dugu ekitaldi berezia, haiei eskerrak emateko eta gogorarazteko, besterik ez bada ere, eurak izan direla herri euskaldunaren ordezkariak, Euskal Herriaren ordezkariak, Euskaltzaindiak haien ezpainetatik jaso baitu euskararen altxor preziatua eta molde berrietan jarri, egungo belaunaldiek erabil dezaten maila akademikoan eta ikasian.

Ezin bukatu Andolin Eguzkitza zena gogoratu barik. Ausartia izan hura, eta, EHHA egitasmoaren kinka larri batean, ontziaren lema hartzeko ez zuen beldurrik izan, ezpada adore eta kemena. Adore eta kemen berberak ditu Euskaltzaindiak, EHHA egitasmoarekin jarraitzeko. Horretan espero du zuen laguntza eta bultzada izatea.

Mila esker,

Andres Urrutia
euskaltzainburua